

1. ERANSKINA

IZEN EMATE ETA PARTE HARTZE COVID 19 KLAUSULA

COVID-19a dela eta beharrezkoa da osasun autoritateek ezarritako protokoloak jarraituz, neurri batzuk hartzea. Neurri horiek betetzeko beharrezkoa da antolatzaileen eta parte hartzaileen konpromezua. Dokumentu hau irakurtzea eta onartzea beharrezkoa da lasterketan parte hartzeko. Lasterketako parte hartzaileak ondorengoa adierazten du:

- 1.- "ARAUDIA" dokumentua ezagutzen duela, antolakuntzak argitaratua daukana.
- 2.- Dokumentu honetan agertzen diren betebeharrak edo gomendioak betetzera konprometitzen dela. Gainera, egun horretan antolakuntzak emandako aginduak ere beteko ditu Covid-19 gaixotasunaren hedapena ekiditeko.
- 3.- COVID-19arekin zer ikusia duten sintomak baldin baditu ez dela lasterketara joango eta ez duela parte hartuko. Gainera sintomak izan dituen norbaitekin kontaktuan egon baldin bada ere ezingo da lasterketara joan.
- 4.- COVID-19a baldin badauka edo izan badu, ez dela lasterketara joango ezta parte hartuko, osasun arduradunek gainontzekoentzat arriskutsua ez dela esaten duten kasuetan izan ezik.
- 5.- Eskuragarri dituen erremintak erabiliz, eta beti ere hori egitea gomendatzen duten baldintzak eman direnean, COVID-19 duela edo izan duen jakiteko tesa egingo duela, osasun arloko profesionalen gomendioak jarraituz.
- 6.- Egoera berezi honetan COVID-19 gaisotasunaz kutsatzeko aukera dagoela ezagutzen duela, onartzen duela eta bere gain hartzen duela arrisku hori, horrek osasunerako ekar ditzazkeen arazoak kontutan hartuta, heriotza barne.
- 7.- Antolakuntzak publikatutako dokumentuan jarri dituen neurriak gauzatzea onartzen du, lasterketa gunea ahalik eta segurua izan dadin. Gainera, lasterketa egunean antolakuntzak ezar ditzazkeen neurri berriak bete beharko ditu, gaixotasunaren kutsadura sahiesteko beti ere.
- 8.- Osasun egoera segurtatzeko, antolakuntzak zenbait erabaki hartzen baldin baditu lasterketan zehar, parte hartzaileak onartu behar du antolakuntzak bere bete beharra burutu duela eta ezin izango du inolako diru itzulketa, indemnizazio edo bestelakorik eskatu.
- 9.- Antolakuntzak ezarritako bete behar eta arauak betetzen ez baditu, lasterketatik kanporatua izan daitekeela.
- 10.- Aurreko puntuan aipatutakoaz gain, parte hartzaileak kirol-federazio arloko autoritateen gain arauak ez betetzearren erantzunkizunak izan ditzakeela onartzen du.